

Beskoitzeko Ikastolaren egoera desblokeatzeko mobilizazioa egingo dute

KAZETA.EUS :: 16/11/2023

Blokeo egoerari bukaera ematea da xedea, izan ere, Herriko Etxeak ikastolari eraikuntza proiektuaren baimena ukatzen dio.

Hitzordua azaroaren 18an, larunbatarekin, finkatua da, Beskoitzeko frontoian. Seaskak egin deiak herriaren eremua gainditzeko du. Gaur egun blokeatua den egoera bati bukaera ematea da xedea, iragan irailean Herriko Etxeak ikastolari eraikuntza proiektu baten baimena ondoan.

Urriaren 17an, ikastolako burasoek Pirinio Atlantikoetako prefetaren etorrera baliatu zuten blokeo horri buruz galdegiteko. «Herriko Etxearen eskumena da eraikitze baimena ematea. Haatik, gurasoei erran diedanez, harremana eta eztabaida errazten saia gaitezke, egoera desblokeatu dadin», erran zuen orduan Julien Charlesek, elkarrizketaren alde eginez.

«Itzulerarik ez»

«Irekia iduritu zaigu, baina oraino ez dugu horren berririk», adierazi du Julien Jaureguyk. Azken honek, Cyril Fesquinerekin batera ikastolako lehendakaria izan ondoan, Manu Diribarneri utzi berri dio bere lekua. Bada, tokiko solaskiderik eza deitoratzen jarraitzen du. «Azken bi prentsa aitzinekoen ondotik, irailean eta urrian, gutun bana igorri dugu herriko etxera Seaskaren bidez, hitzordua hartzeko eta egoera desblokeatzen entseatzeko. Ez dugu erantzunik ukan».

Beskoitzeko Ikastolaren kazetaren lehen zenbakian, azaroaren 4koan, aski zabaldua izan dena, ikasleen buraso elkarteak berriz ere obra baimenaren inguruko nahasmendua azpimarratu du. «Arazo tekniko guziek aterabide bat badute (aktoreak mahai baten inguruan esertzen badira), kasu honetan baldintza hori ez da betetzen, konponezina bihurtzen da. Herriko Etxeak jabearen eraikuntza akordio gutuna eskatzen digu. Baina jabea bera da».

Julen Jaureguyrentzat mobilizazioa funtsezkoa da. «Erakutsi behar da ikastola ez dela bakarrik. Seaskatik harago, euskararen eta euskal kulturaren alde lan egiten duten guzien sarea bada. Espero dugu euskaldun eta euskalzale guziak Beskoitzeko ikastolara etorriko direla bigarren aldiz hil ez dadin. Duela berrogei bat urte sortu ondoren, fite hetsi behar izan zuen. Gaur etorkizun bat ziurtatu nahi diogu ikastolari».

Deia Euskal Herri osoari

Hego Euskal Herrian ere zabaldu da deia, gehitu du Julien Jaureguyk. «Ikastolen elkarteak babesa eman digu eta azken prentsa aitzinekoan parte hartu zuen. Oñatiko ikastolarekin ere badugu senidetze moduko bat, Ideiak-en bidez garatu dena, Pirinio Atlantikoetako

Departamenduko Kontseiluak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri duten mugaz gaindiko aurrekontu parte-hartzailea. Elkarlan anitz ditugu, eta haiek ere babesten gaituzte».

Ipar Euskal Herriko hainbat ikastolarekin batera, azaroaren 18an Beskoitzerekin bat egiteko autobusak antolatzen ari dira, besta hitzordu bati begira, Julen Jaureguyk azpimarratu duenez. «Artista edo musikari anitz izanen dira eguna alaitzeko, bereziki desfilearen ondoko arratsaldean». Azken honek ahalik eta mobilizazio zabalena espero du, Herriko Etxearekin elkarriketa berreskuratzeke, «lehenbailehen».

Azaroaren 14an, asteartea, lehen mobilizazio bat egin zen, Hazparneko, Bardozeke, Lekorneko, Arberoako eta Hiriburuko ikastolek danborrada ttipi bat antolatu baitzuten Beskoitzen, elkartasun keinu gisa.

<https://eh.lahaine.org/beskoitzeko-ikastolaren-egoera-desblokeatzeko-mobilizazioa>